



ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA KONTRABAXUA

2010eko otsialaren 1ean

2010ko otsailaren 1ean, Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Kontrabaxu espezialitatean. Bertan parte-hartuko dute, izena ematen duen oroz gain, kontrabaxu irakasle diren Niek de Groot eta Wolfgang Güttler. Espezialitateko Musikeneko ikasleen parte-hartzeak ere garrantzia izango du jardunaldian.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gaintitu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gaintitzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaintituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Zein da lan-egitasmoa?

Astelehena, 2010eko otsailaren 1a

16.00. Ateak zabaltzeko jardunaldiaren aurkezpena. Parte-hartzaile guztiak Musikeneko gela batean bilduko dira.

16.00-20.00. Taldea hainbat gelatan zatituko da. Espezialitateko irakasleek eskola irekiak emango dizkiete Musikeneko ikasleei, interesatuek espezialitateko eskola normal bat nola garatzen den ikusteko aukera izan dezaten. Ematen diren eskolen barruan denbora utziko zaie galde-erantzunei.

20.00. Jardunaldiaren itxiera

Non dago Musikene?

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

Faxa: 00 34 943 316916

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: cbingham@musikene.net